



## LIBURUTEGIA ERABILTZEKO ARAUAK

Liburutegian isilik egon behar da (ozen hitzegitea ez da batere lagungarria liburutegian dauden beste irakurleentzat). Era berean, haurrak irakurtzeaz aspertu eta aztoratzen direnean, joateko ordua da. Isiltasunak isiltasun, ikastera etortzen direnei tolerantzia izatea eskatzen zaie: liburuak aukeratzera etortzen direnek eskubidea dute liburutegian askatasunez mugitzeko eta liburutegiko langileei kontsultak egiteko; baita irakurgetan ere. Denok gara liburutegiko erabiltzaileak.

- Liburutegian isilik egon behar da.
- Debekatuta dago jatea, edatea eta erretzea.
- Ezin da animaliarik sartu, txakur itsu-gidariak izan ezik.
- Helduen ardura (gurasoena, zaintzaileena, aitona-amonena...) izango da haurrak liburutegitik eramatea, irakurtzeaz aspertu eta aztoratzen direnean.
- Dokumentuak kontsultatu ondoren, horretarako jarrita dauden kaxa urdin eta laranja utzi behar dira. Liburutegiko langileak arduratuko dira apaletan jartzeaz.
- Norbaitek dokumenturen bat (liburuak, DVDak, CDak, E-bookak...) kaltetu edo galduz gero, berria erosi beharko du.
- Ezin da instalatu kanpoko DVDrik, CD-ROMik... liburutegiko ordenagailuetan.
- Dokumentuak itzultzen ez dituztenek ezin izango dute mailegu-zerbitzua erabili dokumentuak itzuli arte.
- Internet zerbitzua ezin da erabili txateatzeko edo orrialde pornografikoak kontsultatzeko.
- 14 urtetik beherakoek ezin izango dute facebook eta twitter sareetan sartu.
- Ezin da interneteko jokuetan ibili.
- Telefono mugikorra itzalita edo soinurik gabe eduki behar da.
- Ezin da irudirik grabatu edo argazkirik atera liburutegian.
- Hemen hondakinak gaika biltzen ditugu, izan arduratsu.

Arautegia behin baino gehiagotan urratzen duenari, liburutegiko txartela kenduko zaio bolada baterako eta liburutegian sartzea debekatu.